

*ARAUDIA, BASKEPENSIONES BANAKAKO  
BGAE-AREN "BASKEPENSIONES 2026KO  
HORIZONTEA BANAKAKO GIZARTE  
AURREIKUSPENEKO PLANARENA"*

**ARAUDIA, BASKEPENSIONES BANAKAKO BGAE-AREN**  
**“BASKEPENSIONES 2026KO HORIZONTEA BANAKAKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO**  
**PLANARENA”**

**I. TITULUA**

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. art. PLANAREN IZENA**

Zerbitzuen araudi honek (“Araudia”) **“BASKEPENSIONES 2026KO HORIZONTEA BANAKAKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO PLANA”** (aurrerantzean, BASKEPENSIONES 2026KO HORIZONTEA BGAE edo “Plana”) izeneko banakako modalitateko gizarte aurreikuspen plana BASKEPENSIONES Banakako BGAEan (“BGAE” edo “Erakundea”) integratzen du.

**2. art. ARAUDIAREN XEDEA**

BASKEPENSIONES 2026KO HORIZONTEA Planaren Araudiak, BASKEPENSIONES Banakako BGAEari atxikitakoak, BGAEren eta Planari atxikitako bazkideen eta onuradunen arteko harremanak arautzen ditu, baita beren eskubideak eta betebeharrak ere.

**3. art. PLANAREN MODALITATEA**

BASKEPENSIONES Banakako BGAEan integratutako plana, bertako bazkideen edo elkartuen arteko lotura dela eta, banakako sistemaren modalitatean kokatzen da eta, ezarritako ekarpenen eta prestazioen araubidea denez, ekarpen definitu gisa definitzen da.

**4. art. PLANAREN HASIERA DATA ETA IRAUPENA**

Plana erakundean integraturik dagoela esango da, Eusko Jaurlaritzako agintaritza eskudunak baimena emateko ebazpena eman eta plana Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Erregistroan inskribatu ondoren.

Era berean, Plana epe mugagaberako eratuko da eta iraupen mugagabea izango du.

## **II. TITULUA**

### **BAZKIDEAK ETA ONURADUNAK**

#### **I. KAPITULUA**

##### **MOTAK ETA EZAUGARRIAK**

##### **5. art. BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK ETA EZAUGARRIAK**

Erakundearen estatutuetan xedatutakoaren arabera, BASKEPENSIONES Banakako BGAEan, honako bazkide mota hauek egon daitezke:

##### **A.- Bazkide sustatzailea**

Bazkide sustatzailea Kutxabank, S.A. da. Bere borondate eratzaillearekin eta hasierako ekarpenekin hartzen du parte borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakunde baten sorreran eta eraketan, eta haren gobernu organoen parte da, Erakundearen estatutuetan ezarritako moduan, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Kutxabank, S.A.k Bilbon (Bizkaia) du egoitza (On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia, 30-32), eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 5.226 liburukian, 1. folioan eta BI-58.729 orrian, eta A-95.653.077 IFZ zenbakia du ("Bazkide Sustatzailea").

##### **B.- Bazkide arruntak**

Bazkide arruntak edo osoko bazkideak pertsona fisikoak dira, beraientzat edo beren onuradunentzat prestazioren bat lor dezaketenak, unean indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera ("Bazkide Arruntak").

Bazkide arruntak modalitate hauetakoak izan daitezke:

- Bazkide arrunt aktiboak: haientzako edo beren onuradunentzako prestazioren baterako eskubidea duten pertsonak dira, beren kabuz edo beren izenean dauden hirugarrenek egindako ekarpen ekonomikoen bidez ("Bazkide Arrunt Aktiboak").
- Bazkide arruntak etenduran: bazkide aktiboak izan arren, hiru ekitaldi ekonomikotan ez dute ekarpenik egin, ez beren kabuz, ezta hirugarren pertsonen haien izenean ere ("Bazkide Arruntak Etenduran").
- Bazkide arrunt pasiboak: bazkide aktiboak izan arren, subjektu babestuak izanik, kontingentzia gertatu ondoren prestazioaren zuzeneko titular bihurtu dira, ("Bazkide Arrunt Pasiboak").

Era berean, erakundeak onuradunak integratu ahal izango ditu. Onuradunak izango dira, kausatzailearekin duten harremanarengatik, kontingentzia (heriotza) gertatu ondoren prestazioaren titular bihurtu diren pertsona fisikoak (“Onuradunak”).

Atxikipen buletinean edo zuzenbidean baliozkoa den edozein frogabidez onuradunak izendatu direla egiaztatzen duen ondorengo dokumentuan onuradunak berariaz izendatu ezean, hauek izango dira onuradunak, lehentasunezko ordena baztertzailan:

- 1) Legez banandu gabeko ezkontidea edo behar bezala eraturako izatezko bikotekidea.
- 2) Ondorengoak leinuen arabera.
- 3) Aurrekoak.
- 4) Legezko oinordekoak.

## **II. KAPITULUA**

### **SARTZEKO, KIDE IZATEKO ETA BAJA EMATEKO ARAUBIDEA**

#### **6. art. PLANARI ATXIKITZEA**

Bazkide arrunta izateko, banakako eskaera egin beharko da, eta gobernu batzordeak (“Gobernu Batzordea”) zehaztutako gutxieneko diru kopuruak eman, Araudi honetan jasotako arau guztiak onartuta.

Bazkide arrunta banakako eskabidearen bidez atxikiko zaio Planari. Eskabidean, hala badagokio, Planari aldian-aldian egingo dion ekarpenaren zenbatekoa adieraziko da, baita Gobernu Batzordeak ezar ditzakeen gainerako zehaztapenak ere. Atxikipen hori bazkide sustatzailearen, KUTXABANK, S.A.ren, bulegoetan egin ahal izango da, baita urrutiko edozein komunikazio prozeduraren bidez edo Gobernu Batzordeak zehaztutako beste edozein moduren bidez ere.

#### **7. art. BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN BAJA**

Bazkide Arruntek eta Onuradunek baja emango dute, Erakundearen estatutuetan xedatutako kausez gain, honako egoera hauetako batean:

- Heriotzagatik.
- Eskubide ekonomikoak guztiz eskuratzegatik, horretarako legez eta araudi bidez aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

## **III. KAPITULUA**

## **ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **8. art. BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

BASKEPENSIONES Banakako BGAEn estatutuetan xedatutakoak izango dira, jarraian adierazten diren zehaztapenekin:

#### 8.1 Eskubide ekonomikoak eskualdatzea edo mobilizatzea

Bazkide Arruntek eta Onuradunek BASKEPENSIONES 2026KO HORIZONTEA BGAE Planeko beren eskubide ekonomikoak, erabat edo partzialki, mugitu ahal izango dituzte BASKEPENSIONES Banakako BGAEn integratutako beste plan batzuetara. Plan garantizaturako mugituz gero, mugimendu horiek ahal direnean egin beharko dira, dena delako plan garantizaturako bere garaian zehaztu ziren araudiak betez. Horretarako, bazkide edo onuradunek beren nahia jakinarazi beharko diote Gobernu Batzordeari eta azken honek eskubidea gauzatzeko behar diren neurriak erabaki beharko ditu, horretarako zehaztutako legezko gehieneko epean, jakinarazpenetik kontatzen hasita.

BASKEPENSIONES 2026KO HORIZONTEA BGAE Planeko bazkide arrunten eta onuradunen eskubide ekonomikoak borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste erakunde batera mugitzeko eskaera idatziz egingo zaio Gobernu Batzordeari, aurkezten den unean indarrean dagoen araudiari jarraikiz. Gobernu Batzordeak legez ezarritako gehieneko epean gauzatu beharko du mugitzeko eskaera, aurkezten den unetik hasita.

#### 8.2 Eskubide ekonomikoak aldeztatik eskuratzea (erreskate eskubidea)

Bazkide Arruntek aldeztatik eskuratu ahal izango dute aurreikuspen planetara egindako ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoen zenbateko osoa edo partziala, baldin eta 10 urtetik gorako antzintasuna badute, aplikatu beharreko araudian xedatutako moduan eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzako agintaritza eskudunak zehaztutako irizpideak kontuan hartuta.

#### 8.3 Aldian behingo informazioa

Bazkide Arrunten eta Onuradunen eskura jarri beharreko informazioa eta dokumentazioa alde batera utzi gabe, estatutuetan eta aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren arabera, Bazkide Arruntek eta Onuradunek aldian-aldian honako informazio hau jasoko dute gutxienez:

1. Urteko ziurtagiria, egindako edo jasotako ekarpenenei eta/edo prestazioei eta, hala badagokio, jasandako atxikipenei buruzkoa.
2. Sei hilez behingo egiaztagiria, aldi bakoitzean egindako zuzeneko ekarpenei edo egotzitakoei buruzkoa, eskubide ekonomikoen amaierako balioari buruzkoa, halakorik balego, eta aldi horretan ordaindutako prestazioen zenbatekoari

buruzkoa. Halaber, kudeaketa txosten laburtu bat bidaliko da, salbu eta bazkideekin harremana telematikoa izaten denean. Kudeaketa txosten laburtuak aplikatzen den araudian ezarritako informazioaren laburpena jasoko du.

Bazkide Arruntei eta Onuradunei indarrean dagoen araudian ezarritako informazioa baliabide telematikoen bidez jarriko zaie eskura, BASKEPENSIONES Banakako BGAEn web orriaren bidez, Bazkide Arruntak edo Onuradunak dokumentazioa idatziz bidaltzea aukeratzen ez badu. Aurrekoa gorabehera, Kutxabank SAren edozein bulegotan eta BGAEn egoitza sozialean eskatu ahal izango da.

### **III. TITULUA**

#### **EKARPENEN, PRESTAZIOEN ETA KONTINGENTZIEN ARAUBIDEA**

##### **9. art. PLANAREN FINANTZAKETA SISTEMA**

BASKEPENSIONES 2026KO HORIZONTEA BGAE Planak izango duen sistema finantzario-aktuariala banakako kapitalizazio finantzarioa izango da, ekarpen mugatukoa.

##### **10. art. PLANARI EKARPENAK EGITEA**

1. Bazkide Arruntek egingo dizkiote ekarpenak Planari.
2. Ekarpunen zenbatekoa Bazkide Arruntek zehaztuko dute Atxikipen Buletinean eta sarrerako balio data horretarako Kutxabank, S.A.-n irekitako kontu korrontean BASKEPENSIONES Banakako BGAEn aldeko diru sarrera egiten den eguna izango da.

##### **11. art. EKARPENAK ITZULTZEA**

Ekarpinak kobratzeko administrazio prozesuan izandako akatsen ondorioz horiek BASKEPENSIONES Banakako BGAEn Bazkide Arrunten kontuetan oker zorduntzen badira, bazkideek eskatu ondoren, itzulketa izapidetuko da, betiere zerga ekitaldi berean egiten bada.

##### **12. art. INBERTSIOEN ARAUBIDEA**

Estatutuen arabera, Planari atxikitako ondarea bere izaerari egokitutako segurtasun, likidezia eta errentagarritasun irizpideei jarraikiz inbertituko da, mota horretako erakundeei aplikatu beharreko araudian zehaztutako moduan eta zenbatekoan, hain zuzen ere, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen jarduera jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11. artikularekin bat.

BASKEPENSIONES 2026KO HORIZONTEA BGAE Planari atxikitako ondarea Gobernu Batzordeak erabakitako mugetan inbertituko da, betiere aurreko paragrafoan aurreikusitako premisen arabera. Muga horiek aldeztatik aurretik jakinaraziko zaizkie bazkideei, Inbertsio Printzipioen Adierazpenaren bidez. Hori guztia, bazkide eta onuradun orok bere eskubide ekonomikoak BASKEPENSIONES Banakako BGAEan integratzen diren planetara eskualdatzeko eta beste erakunde batzuetako planetara mugitzeko eskubideari kalterik egin gabe.

### **13. art. PLANAREN PRESTAZIOAK**

Araudi honen hurrengo artikuluan xedatutako prestazioek Bazkide Arruntak edo Onuradunak horiek ordaintzeko egunean dituen eskubide ekonomikoen balioa izango dute.

Eskubide ekonomikoak, dagokion prestazioa kobratzeko eskubidea ematen duen kontingentzia gertatu arte, ez dira enbargatuko, eta ezin izango da horien gainean kenkaririk, atxikipenik, lagapenik edo konpentsaziorik egin, ezta inolako kontraturen berme gisa eratu ere.

Kontingentzia gertatu ondoren, enbargoa, traba judiziala edo administratiboa egonez gero, epaitegi edo administrazio eskudunak ezarritakoa beteko da.

Heriotza kasuetan, enbargoa, traba judiziala edo administratiboa egonez gero, epaitegi edo administrazio eskudunak ezarritakoa beteko da, hala dagokionean, onuradunek izan ahal dituzten eskubide ekonomikoak jakinarazi aurretik.

### **14. art. BGAE-K PLAN HONETAN ESTALTZEN DITUEN KONTINGENTZIAK**

BGAEk Plan honetan estaltzen dituen eta prestazioak ordaintzea eragiten duten kontingentziak honako hauek dira:

a) Erretiroa: erretiroagatiko kontingentzia egindakotzat joko da, Bazkide Arruntak benetan erretiroa hartzen duenean Gizarte Segurantzaren eta antzekoen erregimen egokian. Ondorio horietarako, erretiro aurreratua, malgua, partziala eta Gizarte Segurantzak kasuan kasu onartzen dituen beste formula baliokide batzuk erretirotzat hartuko dira.

Egoera horretara iritsi ezin bada, Bazkide Arruntak 60 urte bete eta gero eskatu ahal izango du prestazioa, baldin eta lan egiten ez badu eta lanbide jarduerarik ez badu, edo lana edo lanbide jarduera bertan behera uzten badu eta Gizarte Segurantzako ezin erregimenetan erretiro kontingentziarako kotizatzen ez badu.

b) Lanerako ezintasun iraunkorra edo baliaezintasuna, Gizarte Segurantzako edozein erregimenetan eta antzekoetan ezarritakoaren arabera.

Estali daitekeen lanerako ezintasun iraunkorraren edo baliaezintasunaren kontingentzia ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor partziala, ohiko lanbiderako

ezintasun osoa, lan orotarako ezintasun absolutua eta baliaezintasun handia izango dira. Egoera horiek zehazteko, dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenean araututakoa beteko da.

Bazkide Arruntak Gizarte Segurantzako sistema publikoaren baliaezintasun prestazioren bat eskuratu ezin badu, baliaezintasun kontingentzia gertatuko da, baldin eta, kotizazio gabeko pentsioetarako aplikatu beharreko araudiaren arabera, organo ofizial eskudunek edo erakundeak balorazio funtzio hori berariaz esleitzen dion organoak % 33tik gorako desgaitasun edo gaixotasun maila zehazten badute, aipatutako araudian jasotako baremoak aplikatuz.

c) Heriotza. Bazkide Arrunta hiltzeak alargun edo zurztasun prestazioak edo beste onuradun batzuen aldeko prestazioak jasotzeko eskubidea sor dezake. Onuradunak, bere egoera modu frogagarrian egiaztatu ondoren, aukera hauetako bat hautatu ahal izango du:

- Erakunde bazkide gisa integratzea, dagozkion eskubideak lortuz.
- Eskubide horiek Onuradunak adierazten duen erakundera mugitzeko eskatzea.
- Bazkide Arruntaren heriotzagatiko prestazio gisa, eskubideak, osorik edo zati batean, jasotzea.

d) Mendekotasuna: adinagatik, gaixotasunagatik edo desgaitasunagatik, autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsorialaren ezagatik edo galeragatik, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko beste pertsona baten edo batzuen arreta edo laguntza neurri garrantzitsuak behar dituzten edo, desgaitasun intelektuala edo – gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan– autonomia pertsonalerako beste laguntza batzuk behar dituzten pertsonen egoera iraunkorra izango da. Kontingentzia mendekotasun larria edo mendekotasun handia izango da, mendekotasunari buruz indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera.

e) Iraupen luzeko langabezia: enplegua galtzea edo jarduera uztea langile autonomoen kasuan, baldin eta irizpide hauek betetzen badituzte:

- (i) Legezko langabezia egoeran egotea. Ondorio horietarako, horrelakotzat hartuko dira lan- edo administrazio-harremana azkentzeko eta lan kontratua eteteko kasuak, Gizarte Segurantzaren legedian halakotzat jotzen direnak.
- (ii) Bere kontribuzio mailan langabezia prestazioetarako eskubiderik ez izatea edo, hala badagokio, urtebetez kobratzen egona izatea, salbu eta aurretik prestazio hori amaitu bada. Urteko aldia egiaztatu ahal izango da, langabeziako 12 hilabeteak elkarren segidakoak ez badira ere.
- (iii) Eskaera egiten den unean enplegu eskatzaile gisa izena emanda egotea dagokion enplegu zerbitzu publikoan.



- (iv) Aldez aurretik Gizarte Segurantzako erregimen batean egon diren eta jarduera utzi duten norberaren konturako langileek ere jaso ahal izango dute prestazioa, baldin eta aurreko (ii) eta (iii) paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzen badira.
- (v) Prestazioa hileko errenta gisa ordainduko da, Bazkide Arruntak ordainketa bakarra eskatzen ez badu enplegua sustatzeko helburu zehatz baterako. Hileko errenta baliokidea zehazteko, irizpide hauek aplikatuko dira:
- Langabezian egoteagatik ordaindutakoaren arabeko prestazio publikoa jasotzen bada, gehieneko errenta baliokidea jasotzen den ordaindutakoaren arabeko prestazioa bezalakoa izango da eta hasierako zenbateko gordin berdina izango du.
  - Ordaindutakoaren arabeko prestazioaren zenbatekoa murrizten bada, murrizketa hori konpentsatu ahal izango da prestazio osagarriarekin: gehienez ere, egindako murrizketaren zenbateko berdina izango da.
  - Ordaindutakoaren arabeko prestaziorako eskubiderik ez badago, gehieneko prestazio baliokidea kalkulatzeko, sistema publikoan kotizatutakoa eta kontribuzio prestaziorako eskubidea izateko baldintzak bete izana hartuko da kontuan.

f) Gaixotasun larria: edozein gaitz fisiko edo mental, eta edozein lesio, Bazkide Arrunta gutxienez hiru hilabetez jarraian lan egiteko edo ohiko jarduera egiteko ezgaitzen duena, edota bazkideak, bere izatezko bikotekideak, lehen graduko aurreko edo ondorengo batek, edota tutoretza edo harrera araubidean Bazkide Arruntarekin bizi den pertsonak ebakuntza larria edo ospitaleko tratamendu bat behar izatea eragiten duena.

Aurreko kasu horiek gaixotasun larritzat hartuko dira, baldin eta Bazkide Arruntak edozein mailatako ezintasun iraunkor batengatik prestaziorik jasotzen ez badu, Gizarte Segurantzaren araubidearen arabera, eta baldin eta gaixotasunak bazkidearen errenta erabilgarria murrizten badu, gastuak handitzeagatik edo diru sarrerak murrizteagatik, hori modu egokian egiaztatuz gero. Horretarako, onartzekoa izango da gastuen aurrekontuak aurkeztea.

Prestazioaren eskaerak idatziz egin beharko dira, BASKEPENSIONES Banakako BGAEra bidalita, dagozkion inguruabarrak egiaztatzen dituen dokumentazioarekin batera.

## **15. art. PRESTAZIOAK ORDAINTEKO MODALITATEA**

1. Aipatutako kontingentzien ondorioz Bazkide Arruntek eta Onuradunek – horretarako eskubidea onartu ondoren– jaso ditzaketen prestazioak ordaintzeko modalitateari dagokionez, kapital gisa edo errenta gisa ordaindu ahal izango dira eta zenbatekoa Bazkidearen eskubide ekonomikoen balioa (prestazioa ordaintzeko datan) bezalakoa izango da.

Gaixotasun larriagatiko prestazioa kapital gisa ordainduko da eta ezin izango da gaixotasunaren ondorioz diru sarrerak murriztearen edo gastuak handitzearen ondoriozko zenbatekoa eta Bazkide Arruntaren eskubide ekonomikoen balioa baino handiagoa izan.

Iraupen luzeko langabeziaren prestazioa hileko errenta gisa jasoko da, araudi honetan xedatutako baldintzetan, Bazkide Arruntak ordainketa bakarra eskatzen ez badu, enplegua sustatzeko helburu zehatz baterako.

2. Bazkideak idatziz eskatu beharko du prestazioa.

#### **16. art. PRESTAZIOEN ORDAINKETARAKO PROZEDURA ETA ONARPENA**

1. Kontingentzia erabakigarria gertatu ondoren, prestazioa jaso nahi duen Bazkide Arruntak eta/edo Onuradunak BASKEPENSIONES Banakako BGAEari emango dio horren berri, eta beharrezko informazioa eta prestazioa jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko du.

2. BASKEPENSIONES Banakako BGAEak dokumentazioa aztertuko du, eta beharrezkotzat jotzen dituen datu osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

3. BGAEak gehienez ere bost egun balioduneko epean ordainduko ditu prestazioak, erakundean eskabidea eta egiaztasun guztiak aurkezten direnetik zenbatzen hasita. Hala ere, gertakaria Bazkide Arrunt baten heriotza bada, epe hori onuraduna nor den zehaztu ondoren hasiko da.

4. Bazkideek edo Onuradunek egin dezaketen edozein erreklamazio egiteko, BASKEPENSIONES Banakako BGAEko Gobernu Batzarrera edo bazkidearen defendatzailearengana joko dute, erakundearen estatutuetan xedatutakoaren arabera; erreklamazioa hurrengo bilerako gai zerrendan sartuko da. Horri buruz hartzen den erabakia erreklamaziogileari helaraziko zaio.

### **IV. TITULUA**

#### **ADMINISTRAZIO GASTUAK**

#### **17. art. ADMINISTRAZIO GASTUAK**

Planaren administrazio gastuak aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren mende egongo dira, %0,97 izango dira eta planari atxikitako ondarearen arabera kalkulatuko dira.

Ondorio horietarako, administrazio gastutzat joko dira Planari atxikitako ondarea administratzearen ondorioz sortzen diren zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak, baloreak erosteagatik edo saltzeagatik eratorritako bitartekaritza gastuak izan ezik.

## **V. TITULUA**

### **ARAUDIA ALDATZEA**

#### **18. art. ARAUDIA ALDATZEA**

Araudi hau aldatzeko, Erakundeko Gobernu Batzordeak proposamena egin eta onartuz beharko du; ondoren Eusko Jaurlaritzan aurkeztuko du, hark baimendu eta erregistroan sar dezan.

## **VI. TITULUA**

### **GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK EBAZTEA**

#### **19. art. GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK**

Bazkide Arruntak, Onuradunak edo haren eskubidedunek legez aitortutako interes eta eskubideekin lotutako kexak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, idatziz, Gobernu Batzordean edo haiek aukeratutako bazkidearen defendatzailearen aurrean.

Gobernu Batzordeak, hala badagokio, dagokion ebazpena hartzeko ardura Erakundearen zuzendaritzaren esku utzi ahal izango du edo, hala badagokio, Erakundeari zerbitzu profesionalak ematen dizkieten pertsona fisiko edo juridikoen esku.

Bazkidearen defendatzaileak gehienez ere 15 eguneko epean ebatziko ditu bere prozedura araudiaren arabera aurkezten zaizkion erreklamazioak, eta erreklamazioaren aldeko erabakiak lotesleak izango dira Erakundearentzat.

Bazkidearen defendatzailearen edo, hala badagokio, Gobernu Batzordearen erabakia ez da oztopo izango babes judizial osoa jasotzeko, ezta administrazioaren kontrol eta gainbegiratze eginkizunak betetzeko ere.

Aurrekoa gorabehera, kexa edo erreklamazioaren arrazoia Batzar Nagusiaren edo Gobernu Batzordearen erabaki bat bada, Erakundearen estatutuetan xedatutakoa aplikatuko da.

## **VII. TITULUA**

### **PLANA AZKENTZEKO KAUSAK ETA ONDAREAREN XEDEA**

#### **20. art. PLANA AZKENTZEA**

Plana azkendu egingo da:

- a) Bazkide arruntik eta onuradunik ez badago.
- b) Gobernu Batzordearen erabakiz, aldez aurreko baldintza izango da sortutako prestazioak banan-banan bermatzea eta Bazkide Arrunten eta Onuradunen eskubide ekonomikoak Erakundearen edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste erakunde baten beste aurreikuspen plan batean sartzea. Kasu horretan, Gobernu Batzordearen erabakiak zehaztu beharko du BASKEPENSIONES Banakako BGAEn xede konkretua eta xede horren berri eman beharko die Bazkide Arruntei eta Onuradunei gutxienez bi hilabete lehenago, egoki iritziz gero, eskubide ekonomikoak aurrekoa ez den aurreikuspen plan batera mugi ditzaten.